


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

[www.ehu.es/
azpidazki](http://www.ehu.es/azpidazki)



EHUREKA AHOLKUAK

4

AURREZ AURRE, AHOZ





- Lehen hitza/harrera euskaraz egitea garrantzizkoa da: euskaldunari atea irekiko diogu.
- Zuregana datorrenak informazioa gura du, askotan eskertuko du euskaraz ematea informazio hori. Baina ez zaio axola horrenbeste euskaraz ondo-ondo egitea.
- Saiatu ahal den neurrian tonu hurbila erabiltzen, baita euskara hurbila ere.





■ Askotan galdetuko digute gauza zehatzen gainean. Komeni da horien izena ondo ezagutzea, hizkuntza batean zein bestean (adibidez, titulazioen izenak, fakultateen izenak, gela batzuen izenak, ...).

■ Utzi hitz egiten eta entzun. Pazientzia. Gogoratu, gainera, irribarre batek asko gozatzen duela harremana.

■ Karteltxo bat jar dezakezu leihatilan datorrenak aurrez jakin dezan euskaraz dakizula.





Ohiko esaldiak

■ Agurrak:

Egun on / arratsalde on / kaixo

■ Amaierako agurrak:

Hurrengora arte / gero arte / nahi duzun arte / ondo segi / agur

■ Galdetzeko:

Zer nahi/behar duzu? / Besterik nahi al duzu? /
Laguntzarik nahi? / Bai, esadazu / ...

■ Argibideak emateko:

Igo ezkerreko eskaileretatik

Har itzazu gelako giltzak

Joan zaitez pasilloaren amaieraraino

